BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Kultura Saila
Departamento de Cultura

**AHALDUN NAGUSIAREN 56 /2015 FORU DEKRETUA, Maiatza REN 7 (E)KOA, 2015. URTEAN ZEHAR "MUSEO DIOCESANO DE ARTE SACRO - ELEIZ MUSEOA. BIZKAIA" IZENEKOAREN JARDUERAK ZATI BATEAN FINANTZATZEKO IZENDUN DIRU-LAGUNTZA GAUZATZEAREN ONARPENA EGITEARENA.**

**DECRETO FORAL DEL DIPUTADO GENERAL 56 /2015, DE 7 DE DE Mayo APROBACIÓN DE LA INSTRUMENTALIZACIÓN DE SUBVENCIÓN NOMINATIVA PARA LA FINANCIACIÓN PARCIAL DE LAS ACTIVIDADES DEL DENOMINADO "MUSEO DIOCESANO DE ARTE SACRO - ELEIZ MUSEOA. BIZKAIA", DURANTE EL AÑO 2015**

Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako Foru Sailaren eskumenekoa da, besteak beste, Bizkaian kultura sustatu eta zabaltzea; horrela, berezko kultura ezagutarazteko eta garatzeko aukera ematen da eta Bizkaiko gizartea kultura guztietara zabaltzen da. Horretarako, sail honek Bizkaiaren eta bere Foru Aldundiaren izen ona modu berezian zabaltzeko arte-adierazpenak antolatzen eta zabaltzen laguntzen du.

Entre las competencias del Departamento Foral de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia figuran el promover y difundir la cultura en Bizkaia, posibilitando con ello el conocimiento y desarrollo de la cultura propia y abriendo ampliamente la sociedad vizcaína a todas las culturas. A tal fin, este Departamento organiza y colabora en la difusión de diferentes manifestaciones artísticas que sirven para divulgar de una forma especial el buen nombre de Bizkaia y de su Diputación Foral.

Bizkaiko Eleiz Museoak oso zeregin interesgarria burutzen du Lurralde Historikorako, zeren posible egiten baitu jendeari erakustea, batetik, Eliza Katolikoaren Bilboko Gotzaindegiko tenplu eta elizako beste erakunde batzuetatik jaso egin izandako eta, bestetik, Bizkaiko Foru Aldundiaren jabetzakoak diren artezko oso balio handiko piezak.

El Museo Diocesano de Arte Sacro realiza una labor de gran interés para el Territorio Histórico, ya que hace posible la exposición al público de las piezas de valor artístico que han sido recogidas de los diversos templos y otros entes eclesiásticos de la Iglesia Católica, Diócesis de Bilbao,y las que de arte sacro posee de su propiedad de la Diputación Foral de Bizkaia.

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak honako diru-laguntza hauek zuzenean emateko aukera jasotzen du 20.2.a) artikuluan.

La Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral dispone en su artículo 20.2.a) que podrán concederse de forma directa las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia.

Jarduerok, 2015 ekitaldiari dagokion Jardueren Proiektuaren arabera, honako hauetan gauzatuko dira:

- Tailer didaktikoak (eskola-ikasturte osoan, Gabonetako, Aste Santuko eta

Dichas actividades, según el Proyecto de Actividades correspondiente al ejercicio 2015 presentado, consistirán en:

- Talleres didácticos (durante todo el curso escolar, además de los talleres

udako oporretako tailerrez gain)
- Bisita gidatuak
- Los dulces del convento azoka
- Belenes del Mundo erakusketa
- Parte-hartzea Museoen Nazioarteko Egunean
- Parte-hartzea Ondareari buruzko Europako Jardunaldietan.
- Bildumaren inbentarioa
- Argazkien artxiboaren antolaketa
- Apaingarrien (jantziak) atalaren antolaketa
- Derioko seminario zaharrean gorde diren funtsen antolaketa
- Gordailuko funtsen garbiketa
- Direktorio berria, seinaleak, azalpen testuak eta kartelak jartzea
- Aretoko orrien instalazioa
- Aurreko urteetan bezalaxe, museotik kanpoko jarduerak ere antolatuko direla bertan (Bilbao 700, Bilbao Jazz...).
- Elizak eta bertako altzariak berritu eta zaharberritzeko programetan parte hartzea.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailarekin adostutako erretaulak zaharberritzeko lanen jarraipena
- Museo Margarita Maríarekin zerikusia duten jarduerak antolatzea.
- Done Jakue Bidearen Bizkaiko zatian dauden baselizen ondare eta etnografia arloko balioak teknologia berrien bitartez ezagutarazteko eta zabaltzeko proiektuaren bukaera.

vacacionales en Navidad, Semana Santa y verano).
- Visitas guiadas
- Mercado de Los dulces del convento
- Exposición Belenes del Mundo
- Participación en el Día Internacional de los Museos
- Participación en las Jornadas Europeas de Patrimonio.
- Inventario de la colección
- Organización del archivo fotográfico.
- Organización de la sección de ornamentos (vestiduras).
- Organización de los fondos conservados en el antiguo Seminario de Derio.
- Expurgo del depósito.
- Instalación del nuevo directorio, señalética, textos explicativos y cartelas.
- Instalación de hojas de sala.
- Como en años anteriores, también se organizarán en el Museo algunas actividades ajenas al mismo (Bilbao 700, Bilbao Jazz...).
- Intervención en los programas de reforma / restauración de los templos y su mobiliario.
- Seguimiento de los trabajos de restauración de los retablos acordados con el Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Actividades relacionadas con el Museo Margarita María.
- Finalización del proyecto de Puesta en valor y difusión a través de las nuevas tecnologías de los valores patrimoniales y etnográficos de las ermitas afectas al Camino de Santiago a su paso por Bizkaia.

Eta, erakunde onuradunak emaniko informazioarekin bat etorriz, 2015 ekitaldirako gastu-aurrekontua 378.100,00 €-koa da.

Y de conformidad con la información facilitada por la entidad beneficiaria, su presupuesto de gasto para el ejercicio 2015 asciende a la cantidad 378.100,00 €.

Bilboko Gotzaindegiak, kasu honetan, ez du ondo ikusten diru-laguntza hau emateko hitzarmen instrumental bat sinatzea, ulertzen duenez, dagoeneko baduelako hitzarmen marko bat Foru Erakundearekin,

El Obispado de Bilbao, en este caso, no cree oportuno la firma de un convenio instrumental para la concesión de esta subvención, entendiendo que ya cuenta con un convenio marco con la Institución Foral,

are gehiago aintzat hartuta Foru Arauak laguntza ekonomikoak Foru Dekretuen eta bestelako administrazio tresnen bitartez kudeatzea ere jaso duela.

más aún, teniendo en cuenta que la Norma Foral también contempla gestionar las ayudas económicas a través de Decretos Forales u otros instrumentos administrativos.

Horiek esanda, Diru-laguntzen foru araudiaren 50.3 artikuluaren arabera (Bizkaiko Foru Aldundiko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua -martxoaren 30eko 60. BAO-) foru diru-laguntza izendunak emateko prozedura, hitzarmenik ez baldin badago, beronen oinarri arautzaileak ezarriko dituen emateko ebazpen baten bidez emango da, foru diru-laguntzak emateko kopuruaren arrazoiz eskumenezko mugei dagokienez Araudiaren beraren 12 artikuluan ezarria denaren arabera.

Dicho esto, a tenor del artículo 50.3 del Reglamento foral de subvenciones (Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo –BOB núm. 60 del 30 de marzo-) el procedimiento de concesión de las subvenciones forales nominativas, en ausencia de convenio, vendrá dado por una resolución de concesión que determine las bases reguladoras de la misma, a tenor de lo establecido en el artículo 12 del propio Reglamento en lo referido a límites competenciales por razón de cuantía para la concesión de subvenciones forales.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 19ko 11/2014 Foru Arauak izendun diru-laguntza bat aurrez ikusi duela 2015. urterako 150.000 €-ko zenbatekoagatik "Museo Diocesano de Arte Sacro - Eleiz Museoa. Bizkaia"ren alde. Zenbateko hori egotzi zaio G/450301/45100/0000 2007/0178 aurrekontuzko partidari, ebazpen honen bidez proiektu diruz lagundua kudeatzetik ondorioztatzen den gastuari aurre egiteko.

La Norma Foral 11/2014, de 19 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2015, prevé una subvención nominativa por importe de 150.000 € a favor del "Museo Diocesano de Arte Sacro – Eleiz Museoa. Bizkaia". La tramitación de dicha subvención se imputará a la partida presupuestaria 0404 G/450301/45100/0000 2007/0178, para hacer frente al gasto que se deriva de la gestión del proyecto subvencionado a través de la presente resolución.

Azaldutakoaren ondorioz, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 27.1, 39 eta 67. 1 artikuluetan eta, baita ere, Bizkaiko Foru Aldundiko abenduaren 3ko 172/2013 zk. duen Foru Dekretuan xedatuaren arabera, zeinaren bidez, Kulturako foru diputatu andrearen proposamenez onartu delarik Kultura Saileko Egitura Organikoaren Araudia, zera

Por todo ello, en virtud de los artículos 27.1, 39 y 67.1 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia nº 172/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Cultura, a propuesta de la Ilma. Sra. Diputada Foral de Cultura,

**XEDATZEN DA**

**SE DISPONE**

**Lehena.- Diru-laguntza ematea**

**Primero.- Concesión de subvención**



BFA
DFB

Diru-laguntza gauzatzea onartzen da, izendun modura 2015. urterako Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 19ko 11/2014 Foru Arauan aurrez ikusia dena, 150.000 € (ehun eta berrogeita hamar mila euro) zenbateko jakinagatik "Museo Diocesano de Arte Sacro - Eleiz Museoa. Bizkaia"ri (I.F.K. R-4800604 C) 0404/450301/45100 aurrekontuzko partida eta 2007/0178 proiektuaren kargura "Museo Diocesano de Arte Sacro - Eleiz Museoa-Bizkaia"ren jarduerak zati batean finantzatzeko 2015. urtean zehar, ebazpen honen haritik.

Foru administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 16. artikuluaren ondorioetarako, onuradunak aldundiak emandako diru-laguntza honekin batera beste edozein administrazio edo erakunderen laguntza ere jaso dezake, dekreto honen xedea garatu eta gauzatzeko.

**Bigarrena.- Finantzaketa**

Foru diru-laguntza honen ondorioetarako diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat joko dira indarrean dagoen araudiarekin bat egiten dutela behar bezala justifikatu ondoren, epean burutzen direnak, beharrezkoak direnak eta proiektuaren edo jardunaren izaeraren eta garapen arruntaren araberakoak direnak.

Gastu diruz lagungarriaren zenbatekoak gainditzen duenean kontratu txikirako kontratazioko araudian ezarri diren kopuruak onuradunak eskatu beharko du, gutxienez, hornitzaile ezberdinen hiru eskaintza, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta gastu diruz lagungarrien ezaugarri bereziengatik ez badago merkatuan hornitu edo eskaintzen duten behar den besteko

Se aprueba la instrumentalización de la subvención prevista nominativamente en la Norma Foral 11/2014, de 19 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2015, por importe cierto de 150.000 € (ciento cincuenta mil euros) al "Museo Diocesano de Arte Sacro - Eleiz Museoa. Bizkaia" (N.I.F. R-4800604 C) con cargo a la partida presupuestaria 0404/450301/45100 y proyecto 2007/0178, para la financiación parcial de las actividades del "Museo Diocesano de Arte Sacro - Eleiz Museoa. Bizkaia" de Bilbao, durante el año 2015 a tenor de la presente resolución.

A los efectos del artículo 16 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, la presente subvención foral será compatible con cualquier otra que la beneficiaria recibiera de cualesquiera Administración o ente para el desarrollo y ejecución del objeto del presente decreto.

**Segundo.-Financiación**

Se consideran gastos subvencionables a los efectos de esta subvención foral, aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor del mercado.

Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en la normativa de contratación para el contrato menor, la beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la adquisición del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en

erakunderik edo, salbu eta gastua egin izan bada diru-laguntzaren eskabidea egin aurretik.

el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención.

Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan aurkeztuko dira eta haien arteko aukeraketa egiteko, eraginkortasun eta ekonomiaren irizpideak kontuan hartuko dira. Gainera, aukeraketa memoria bidez justifikatuko da, proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez bada.

La elección entre las ofertas presentadas, que deberá aportarse en la justificación, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

Diru-laguntza eman zaiola jakinarazten zaionetik 10 egun pasatutakoan Kultura Ondarearen Zerbitzuak erakunde onuradunari ordaindu dio, dena batera, Ogasun eta Finantza Sailarekin izapideak eginda. Onuradunari ez zaio eskatuko bermerik, ez baita uste inolako arriskurik dagoenik Foru Erabakia honen bitartez bereganatutako betebeharrak ez betetzeko.

Inmediatamente al transcurso del plazo de 10 días tras la notificación de la concesión de la presente subvención, el Servicio de Patrimonio Cultural procederá al abono de la misma en un solo pago ante el Departamento Foral de Hacienda y Finanzas, no exigiéndose para ello garantía alguna a la entidad beneficiaria, por no apreciarse riesgo de incumplimiento de las obligaciones asumidas por la misma en virtud de este Acuerdo Foral.

Nolanahi ere, aldundiak diru-laguntza hau ordaindu aurretik, erakunde onuradunak zergen arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituen eta laguntza itzultzeko ezartzen duen ebazpen baten zordun den egiaztatuko du.

En todo caso, previo al abono de esta subvención foral, se comprobará que la entidad beneficiaria se encuentra al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social y que no es deudora por resolución de procedencia de reintegro.

Baldin eta egiaztapenean antzematen bada erakunde onuradunak ez duela betetzen aurreko paragrafoan ezarritakoa, hamar (10) eguneko epealdia emango zaio bere egoera erregularizatzeko, eta adieraziko zaio, hori egin ezean, aldundiaren diru-laguntza jasotzeko eskubidea kenduko zaiola, administrazio-ebazpen baten bitartez.

Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que tal entidad incumple lo establecido en el párrafo anterior, ésta será requerida para que en el plazo de 10 días regularice tal situación con indicación de que, en caso contrario, pierde el derecho a la subvención foral, previa la correspondiente resolución administrativa.

**<u>Hirugarrena.</u>- Diru-laguntzaren justifikazioa**

**<u>Tercero.</u>- Justificación de la subvención**

Ebazpen honen bidez emandako diru-laguntzaren onuradunak hauek betetzeko konpromisoa hartu du:

La beneficiaria de la subvención concedida por medio de la presente resolución se compromete a:

a) Proiektua egin

a) Realizar el proyecto

b) Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onetsi zuen Diru-laguntzen Erregelamenduko 65. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, erakunde onuradunak egindako proiektua justifikatzeko 2016ko ekainaren 30a baino lehen aurkeztu beharko ditu ikuskatutako kontabilitate egoerak, Kontabilitate eta Kontu Auditoretza Institutuaren menpeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako kontu auditore batek osatutakoak. Ikuskatutako kontabilitate informazio hori hitzarmen honetako pertsona onuradunak bete beharreko antolamendu juridikoan ezarritako sistemaren arabera egin beharko da, eta, zehazki, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren apirilaren 15eko 945/2011 Foru Aginduan xedatutakoaren arabera. Foru agindu horren bidez, foru sektore publikoko diru-laguntzen justifikazio-kontuak berrikusteko lanak egiteko kontu-auditoreen jardun-arauak onartzen dira; lan horiek maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren Erregelamenduko 59. artikuluan daude aurrez ikusita (martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onartu zuen erregelamendu hori). Kontuen auditoreak jaso beharreko ordainsari osagarriak diruz lagundutako proiektuari egotz dakiokeen gastuaren izaera izango du, osotasunean.

c) Garatutako jarduerak justifikatzeko memoria aurkeztu.

Laugarrena.- **Onuradunaren betebeharrak**

"Museo Diocesano de Arte Sacro - Eliz Artearen Elizbarrutiko Museoa. Bizkaia"k bete behar ditu maiatzaren 31ko 5/2005

b) Conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral y en el artículo 65 del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, la justificación del proyecto realizado por parte de la entidad beneficiaria se realizará mediante la presentación, con anterioridad al 30 de junio de 2016, de estados contables auditados, elaborados por auditor de cuentas inscrito como ejerciente en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas dependiente del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas, debiendo estar la información contable objeto de auditoría elaborada conforme al sistema previsto en el ordenamiento jurídico al que esté sometida la persona beneficiaria, y en concreto, de conformidad con lo dispuesto en la Orden Foral 945/2011, de 15 de abril, del Diputado Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, por la que se aprueban las normas de actuación de las personas auditoras de cuentas en la realización de los trabajos de revisión de cuentas justificativas de subvenciones, en el ámbito del sector público foral, previstos en el artículo 59 del Reglamento de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, de Subvenciones, aprobado mediante Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo. La retribución adicional que corresponda percibir a la persona auditora de cuentas tendrá la condición de gasto imputable a la ejecución del proyecto subvencionado en su totalidad.

c) Presentar una memoria justificativa de las actuaciones desarrolladas.

Cuarto.- **Obligaciones de la beneficiaria**

El "Museo Diocesano de Arte Sacro – Eleiz Museoa. Bizkaia" debe cumplir los requisitos establecidos en el artículo 12 de la Norma

Foru Arauan ezarritako betekizunak. Foru Arau horren arabera ez da sarturik egon behar, xedapen horretan, aipatu den foru arauan arautu diren diru-laguntzen jasotzailea izateko debeku arautuetan.

Foral 5/2005, de 31 de mayo, por lo que no debe estar incurso en las prohibiciones reguladas en dicho precepto para ser perceptor de las subvenciones reguladas en la mencionada norma foral.

Halaber, erakunde honek derrigorrez bete beharko du Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide orokorra ezarri duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 13. artikuluan xedatutakoa.

Asimismo dicho organismo quedará obligado al cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

Zentzu berean, diru-laguntza publikoa jasoz gero, erakunde onuradunak maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan eta baterakoetan ezarritakoa bete beharko du.

En idéntico sentido, la concesión de subvención pública conlleva que la entidad beneficiaria quede sujeta a lo dispuesto en los artículos 33 y concordantes de la mencionada Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

Halaber, "Museo Diocesano de Arte Sacro - Eleiz Museoa. Bizkaia" entitateak Bizkaiko Foru Aldundiak emandako laguntzaren berri emateko konpromisoa hartzen du; horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren ikurra jarriko du pankarta, kartel eta hedapenerako gainerako euskarri guztietan foru aldundiak proiektu honi emandako babesa agertzeko.

Asimismo, el "Museo Diocesano de Arte Sacro - Eleiz Museoa. Bizkaia" se compromete a difundir la colaboración prestada por la Diputación Foral de Bizkaia incluyendo en las pancartas, carteles y cualquier otro medio de difusión el patrocinio foral de este proyecto insertando el logotipo de la Diputación Foral de Bizkaia.

Azpikontratazioak egite aldera, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen erregimen juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 27. artikuluak xedatutakoa hartuko da aintzat. Azpikontratazio onargarriaren gehienezko ehunekoa, diruz lagundutako zenbatekoaren %90ekoa izango da.

A efectos de subcontratación se atenderá a cuanto dispone el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral. El porcentaje máximo de subcontratación admisible será del 90% del importe de la actividad subvencionada.

**Bosgarrena.- Itzulketa**

Jasotako diru-laguntza eta bere berandutza-korrituak itzuli beharko dira, baldin eta aurreko puntuan edo foru administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra ezarri duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 33. artikuluan ezarritako betebeharretako bat betetzen ez bada, besteak beste:

**Quinto.- Reintegro**

Procederá el reintegro de la subvención recibida y los intereses de demora correspondientes, cuando se incumplan alguna o algunas de las obligaciones establecidas en la estipulación anterior o de las previstas en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la

Administración Foral, entre otras:

a) Frogatu beharreko gauzaren bat frogatu gabe uztea.
b) Diru-laguntza eskuratzeko ezarritako baldintzak bete gabe diru-laguntza eskuratzen bada.
c) Diru-laguntza emateko aintzat hartutako xedea betetzen ez bada.
d) Laguntza edo diru-laguntza emateko ezarritako betebeharrak betetzen ez direnean.
e) Ezarritako kontrol-jarduerak eragoztea edo egiten ez uztea.

a) Incumplimiento de la obligación de justificación.
b) Obtener la subvención sin reunir las condiciones requeridas para ello.
c) Incumplimiento de la finalidad para la que la subvención fue concedida.
d) Incumplimiento de las obligaciones impuestas con motivo de la concesión de la ayuda o subvención.
e) La negativa u obstrucción a las actuaciones de control establecidas.

Diru-laguntzaren zenbatekoa haren xede izan den jardueraren kostua baino gehiago bada, hori ere itzultzeko arrazoia izango da.

El exceso de financiación en relación al coste de la actividad subvencionada también constituirá motivo de reintegro.

**Seigarrena.- Erakunde onuradunak itzultzea erabakitzea**

Borondatezko itzulketa da pertsona edo erakunde onuradunak bere kabuz egiten duena, Administrazioak aurretiaz eskatu gabe.

Diru-laguntzei buruzko Araudia onesten duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz (dekretu horrek maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen du), pertsona edo erakunde onuradunak diru-laguntza Bizkaiko Foru Aldundiari itzultzea erabaki dezake hark ez eskatu arren. Hala gertatuz gero, Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntza itzuli arteko berandutza-korrituen zenbatekoa kalkulatuko du aurrean aipatutako 76. artikuluan xedatutakoaren arabera eta 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Onuradunak berak eskatuta foru diru-laguntza itzultzeko ordainketa-gutun bat erabili behar da. Ordainketa-gutun hori diru-laguntzaren kudeaketaz arduratutako foru zerbitzuaren bulegoetan izapidetuko da, onuradunak eskaera aurkeztu eta gero.

**Sexto.- Devolución a iniciativa de la entidad beneficiaria**

Se entiende por devolución voluntaria aquella que es realizada por la persona o entidad beneficiaria sin el previo requerimiento de la Administración.

De conformidad con lo previsto por el artículo 76 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, la persona o entidad beneficiaria podrá proceder a la devolución voluntaria de la subvención concedida por la Diputación Foral de Bizkaia sin el previo requerimiento de esta última. En este supuesto, la Diputación Foral de Bizkaia calculará los intereses de demora hasta el momento de la devolución efectiva de la subvención, conforme a lo dispuesto en el referido artículo 76, y según lo establecido en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005.

La devolución de la subvención foral a instancia de la propia persona beneficiaria de la misma se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago que, a su requerimiento, le será tramitada en las dependencias del Servicio foral gestor de la

Ordainketa-gutun horretan honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutza-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia, itzuli behar den diru-laguntzari erreferentzia eginda.

subvención. En dicha carta de pago se consignará el importe a devolver (principal e intereses), código del modelo y motivo del ingreso haciéndose además referencia a la subvención a devolver.

Diru-laguntzaren onuradunak finantza-erakunde batean edo telebanka sistemaren bidez egin dezake ordainketa. Ordaindu eta gero, ordainketaren kopia edo diru-sarreraren frogagiria bidali beharko dio diru-laguntzaren kudeaketaz arduratzen den Kultura Saileko foru zerbitzuari.

Una vez practicado el abono por la persona beneficiaria de la subvención, bien en una entidad financiera, bien a través del sistema de telebanca, habrá de remitirse copia de la misma o justificante del respectivo ingreso al Servicio foral gestor del departamento de Cultura.

**<u>Zazpigarrena</u>.- Zigortzeko araubidea**

Onuradunak Foru Administrazioen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra ezarri duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko IV. tituluko I. kapituluan jasotako ekintza edo omisioren bat egiten badu, zehapen prozedura hasi ahalko da, foru arau horretako 61. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko IX. tituluko II. kapituluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen zehatzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoaren arabera tramitatuko da.

Arau-hausteak diru-zehapenak ezarriz zehatuko dira. Honakoak izan daitezke:

- Isun finkoa, 75 eta 6.000 euro bitartekoa,
- Proportziozko isunan, hainbatetik bidegabeki lortu, ezarri edo frogatu gabeko kopuruaren hirukoitzera artekoa izan daitekeena.

Era berean, ondoko zehapenak ezartzea erabaki ahal izango da:

**<u>Séptimo</u>.- Régimen sancionador**

La comisión por la beneficiaria de cualquiera de las acciones u omisiones contenidas por el capítulo I del título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, podrá dar lugar a la apertura de un procedimiento sancionador a tenor de lo dispuesto en el artículo 61 de la citada Norma Foral, que se tramitará conforme a lo dispuesto en el capítulo II del título IX de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Las infracciones se sancionarán mediante la imposición de sanciones pecuniarias, que podrán consistir:

- En multa fija, comprendida entre 75 y 6.000 euros,
- En multa proporcional, que podrá ir del tanto al triple de la cantidad indebidamente obtenida, aplicada o no justificada.

Así mismo, se podrá acordar la imposición de las sanciones siguientes:

- Bost urtez, gehienez, Foru Arlo Publikoko diru-laguntza publikoak eta abalak ezin jaso izatea.
- Bost urtez, gehienez, erakunde laguntzaile gisa jarduteko aukera galtzea.
- Bost urtez, gehienez, Foru Aldundiko sektore publikoko erakundeekin kontratuak egiteko debekua.

Zehapena ezartzeak ez du zerikusirik diru-laguntzaren kontzeptuan oker jaso den zenbateko hori itzultzeko betebeharrarekin.

**<u>Zortzigarrena</u>.- Ezarri beharreko araudia**

Xedapen honetan aurrez ikusi ez diren inguruabar denetan honako hau aplikatuko da: foru administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua; diru-laguntzen araudia onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua, 5/2005 Foru Araua garatzen duena; eta, osagarri gisa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta bere izaera aintzat hartuta aplikatu beharreko beste edozein xedapen arauemaile

**<u>Bederatzigarrena</u>.- Datuen babesa**

Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko, jakinarazten dizut zure datuak fitxategi batean sartuko direla, espediente hau eta lotutako beste edozein kudeatu ahal izateko.

Fitxategi honen arduraduna Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako Zuzendaritza nagusia da. Harengana jo ahalko duzu datuak ikusi,

- Pérdida, durante un plazo de hasta cinco años, de la posibilidad de obtener subvenciones públicas y avales del sector público foral.
- Pérdida durante el plazo de hasta cinco años de la posibilidad de actuar como entidad colaboradora.
- Prohibición, durante un plazo de hasta cinco años, para celebrar contratos con cualquier entidad del sector público foral.

La imposición de sanción será independiente de la obligación de reintegro de la cantidad indebidamente obtenida en concepto de subvención.

**<u>Octavo</u>.- Normativa aplicable**

Para todos aquellos aspectos no previstos en la presente disposición serán aplicables la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, y supletoriamente la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

**<u>Noveno</u>.- Protección de datos**

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido por la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, sobre Protección de Datos de Carácter Personal, le informamos de que sus datos van a ser incluidos en un fichero con la finalidad de gestionar este expediente y cualquier otro concordante.

El responsable de este fichero es la Dirección General de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, ante quien

zuzendu, ezabatu eta haiei aurka egiteko eskubideak erabili nahi badituzu; horretarako zuzendaritza nagusi honen jendearentzako edozein bulegotara joan behar duzu (Bilboko Rekalde zumarkalea, **30, 2)** eta NANa aurkeztu.

usted podrá ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose para ello a las oficinas de atención al público de esta Dirección General, sitas en Alameda Rekalde 30, 2º en Bilbao, donde deberá presentar su DNI.

**Hamargarrena**.- Ahaldun Nagusiaren Foru Dekretu hau komunikatzea "Museo Diocesano de Arte Sacro - Eleiz Museoa. Bizkaia"ri, Bilboko Gotzaindegiari eta Kulturako Foru Sailaren Zerbitzu Orokorrei.

**Décimo**.- Comunicar el presente Decreto Foral del Diputado General al "Museo Diocesano de Arte Sacro - Eleiz Museoa. Bizkaia", al Obispado de Bilbao y a los Servicios Generales del Departamento Foral de Cultura.

Bilbo, 2015eko maiatzaren 7a

Bilbao, a 7 de mayo de 2015

Kultura Ondarearen Zerbitzuko Burua
El Jefe del Servicio de Patrimonio Cultural
Andoni Iturbe Amorebieta

O.E./VºBº
Kultura Zuzendari Nagusia
Director General de Cultura
Gonzalo Olabarria Villota

Kulturako Foru diputatua
La Diputada Foral de Cultura
MIREN JOSUNE ARIZTONDO AKARREGI

AHALDUN NAGUSIA / EL DIPUTADO GENERAL
JOSE LUIS BILBAO EGUREN